

**NEKAZARITZAKO IBILGAILU ETA IBILGAILU-TALDEETARAKO ZIRKULAZIO  
BAIMEN OSAGARRIA**

---

- I. NEKAZARITZAKO IBILGAILU BEREZIETARAKO ETA HAIEN TALDEETARAKO BAIMENA
- II. ESKABIDEAK LORTZEA ETA AURKEZTEA
- III. IZAPIDETZEAZ ARDURATUKO DEN BULEGOA
- IV. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK
- V. "NEKAZARITZA-S03" ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK
- VI. PROZEDURA ETA BAIMENA EMATEA
- VII. BAIMENAREN ZIRKULAZIO-BALDINTZAK
- VIII. DATU PERTSONALEN BABESA

## I. - NEKAZARITZAKO IBILGAILU BEREZIETARAKO ETA HAIEN TALDEETARAKO BAIMENA

Nekazaritzako ibilgailu berezi autopropulstakuek, gurdi-traktoreak barne, eta haiek osatzen dituzten taldeek Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren IX. eranskinean ezarritako masak eta neurriak gainditzen badituzte, zirkulazio baimen osagarria behar dute, erregelamendu horren 14.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ibilgailu berezi horietarako zein osa ditzaketen taldeetarako (aurrerantzean, "nekazaritzako IB eta IB-taldeak") zirkulazio-baimen kategoria bakarra ezarrita dago.

Zirkulazio-baimen hori behar da nekazaritzako IB-ek edo IB-taldeek abian masa edo neurri hauetakoren bat gainditzen dutenean:

|                       |  |
|-----------------------|--|
| Luzera ( <b>L</b> )   | > 12 m   |
| Zabalera ( <b>a</b> ) | > 3,05 m   |
| Altuera ( <b>h</b> )  | > 4 m  |
| Masa ( <b>M</b> )     | > 18 t ibilgailu motordunak badira,<br>> 36t, 2, 3 eta 4 ardatzeko nekazaritzako taldeak badira,<br>> 40t, 5 ardatzeko edo gehiagoko nekazaritzako taldeak badira) |

## II.- ESKABIDEAK LORTZEA ETA AURKEZTEA

Nekazaritzako IB eta IB-taldeetarako baimen-eskabidea "nekazaritza-S03" izeneko inprimakia da eta lortu ahal da:

- "Zuzenean" herritarrentzako arreta zerbitzuaren bulegoetan.
  - Araba: Ramiro de Maeztu kalea, 10, behea
  - Bizkaia: Kale Nagusia, 85 (Bilbao)
  - Gipuzkoa: Andia kalea, 13 (Donostia)
- Trafiko Zuzendaritzaren webgunearen bitartez, <http://www.trafikoa.eus>

Eskabidea behar bezala beteta eta aurkeztu beharreko agiriak, "Zuzenean" herritarrentzako arreta zerbitzuaren edozein bulegotan aurkeztu behar dira, edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aurreikusten dituen lekuetan.

### **III. IZAPIDETZEAZ ARDURATUKO DEN BULEGOA**

Nekazaritzako IB eta IB-taldeetarako zirkulazio-baimenen eskabideak trafikoko lurralde-bulegoetara zuzendu behar dira; ibilgailua Lurralde Historiko bakar batetik ibiliko bada, Lurralde Historiko horretako lurralde-bulegora eta Lurralde Historiko gehiagotatik ibiliko bada, eskatzaileak aukeratutako lurralde-bulegora.

Eskabidea zuzendu zaion bulegoa arduratu beharko da izapidetzeaz.

### **IV.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:**

Behar bezala betetako eskabideaz gain, agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

- ❖ Baimenaren titularraren identitatea egiaztatzen duen agiriaren kopia (IFZ edo IFK).
- ❖ Ordezkaritza egiaztatzen duen agiriaren kopia, baldin eta pertsona hori eta baimenaren eskatzailea pertsona bera ez badira.
- ❖ Ibilgailuen zirkulazio-baimenaren kopia.
- ❖ IAT-txartelaren kopia, aldizkako azterketa indarrean dagoela, eta ezaugarri teknikoen ziurtagiria. Horiek izan ezean: fabrikatzailearen fitxaren kopia edo, bestela, interesdunaren erantzukizunpeko adierazpena, ibilgailuei, atoei, erdi-atoiei, nekazaritza-tresnei, -lanabesei eta beste ekipo batzuei buruzko datu teknikoak jasotzen dituenak.
- ❖ Baimenaren titularra ibilgailuen errentaria ere baldin bada: Erantzukizunpeko adierazpen hau: ibilgailua errentari gisa daukala bere esku.
- ❖ Baimenaren titularra nekazaritzako ustiategi bat izango bada:
  - Nekazaritzako ustiategiaren txartelaren kopia eta
  - Nekazaritzako ustiategiaren titularraren erantzukizunpeko adierazpena, ustiategi horretara atxikitako ibilgailu, atoi, erdi-atoi, makina eta ekipoei buruzkoa.

**V.- "Nekazaritza-S03" ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK**

Eskabidean datuak bete aurretik, adierazi behar da (dagokion laukian check bat jarriz) zer eskatu nahi den, baimen berri bat ala indarrean dagoen baimen baten aldaketa (bigarren kasu horretan baimen horren zenbakia zehaztu behar da).

**ZIRKULAZIO BAIMEN OSAGARRIAREN ESKAERA  
NEKAZARITZAKO IBILGAILU ETA HAIEN TALDEETARAKO**

- BAIMEN BERRI BAT ESKATZEA**
- ..... **ZENBAKIDUN BAIMENA ALDATZEA**

Jarraian atal hauek bete behar dira:

**1.- Titularraren datuak**

Zirkulazio baimen osagarriaren onuraduna eta arduraduna izango den pertsonaren, enpresaren edo nekazaritzako ustiategiaren izena.

Baimenaren titularra izan ahal da, egoera horietako batean baldin badago:

- Nekazaritzako ibilgailu motordunen zirkulazio-baimenaren titularra izan.
- Nekazaritzako ibilgailu motordunen errentaria izan.
- Nekazaritzako ustiategi baten titularra izan, ustiategiari atxikitako ibilgailuei eta haien taldeei dagokienean.

Urdinez nabarmendutako datuak bete behar dira:

| 1.- TITULARRAREN DATUAK                |  |                                |  |                          |  |
|--|--|--------------------------------|--|--------------------------|--|
| IFZ/IFK:                               |  | Izen-abizenak<br>Izen soziala: |  |                          |  |
| Helbidea (kalea,<br>plaza, hiribidea): |  |                                |  |                          |  |
| Herria:                                |  | Probintzia:                    |  | Posta-<br>kodea          |  |
| Telefonoa:                             |  | Faxa:                          |  | Helbide<br>elektronikoa: |  |

## 2.- Eskatzailearen datuak

Zirkulazio Baimen Osagarria eskatzen duen pertsonaren, aholkularitzaren, elkartearen edo beste edozein erakunde motaren datuak idatziko dira, baldin eta eskatzaileak baimenaren titularra izango denaren ordezkari gisa eskatzen bada.

Atal hau bete behar da, baldin eta eskatzen duen pertsona eta baimenaren titularra izango dena desberdinak badira, bestela ez. Bete behar bada, urdinez nabarmendutako datuak bete:

| ESKATZAILEAREN DATUAK (baldin eta titularra ez bada) |  |                                |  |                          |  |
|--|--|--------------------------------|--|--------------------------|--|
| IFZ/IFK:   |  | Izen-abizenak<br>Izen soziala: |  |                          |  |
| Helbidea (kalea,<br>plaza, hiribidea):               |  |                                |  |                          |  |
| Herria:  |  | Probintzia:                    |  | Posta-<br>kodea          |  |
| Telefonia:   |  | Faxa:                          |  | Helbide<br>elektronikoa: |  |

## 3.- Erabiliko diren nekazaritzako ibilgailu autopropulstsuen edo motordunen matrikulak (gehienez ere 5)

Eskabide bakoitzeko **gehienez ere ibilgailu motordunen 5 matrikula** sartu ahal dira eta ibilgailuak beren matrikula- edo txasis-zenbakiarekin (aldi baterako matrikula izanez gero) identifikatuko dira.

Kasu honetan, urdinez nabarmendutako datuak bete behar dira:

| ERABILIKO DIREN NEKAZARITZAKO IBILGAILU AUTOPROPULTSATUEN EDO MOTORDUNEN MATRIKULAK (gehienez ere 5) |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|
|  |  |  |  |  |

## 4.- Autopropulstsatuak ez diren ibilgailuak eta matrikulatu gabeko ekipoak (a eta b atalen artean, gehienez ere 25)

Eskabide bakoitzean **gehienez ere horrelako 25** sartu ahal dira: atoi, erdi-atoi, atoian eramateko nekazaritzako makina, nekazaritza-tresna, -lanabes eta beste ekipo batzuk muntatuta, esekita edo erdi-esekita daudenak eta taldea osatuko duten ibilgailu motordunekin bateragarriak direnak.

**a) atalean** matrikula hauek idatzi behar dira: taldeak osatzeko erabiliko diren atoi, erdi-atoi edo atoiaren eramateko nekazaritzako makinak, baldin eta ibilgailu horien Baimendutako Gehieneko Masa 750 kg-tik gorakoa bada.

| AUTOPROPULTSATUAK EZ DIREN IBILGAILUAK (a eta b atalen artean, gehienez ere 25)                                   |  |  |  |  |
|---|--|--|--|--|
| <b>a) ERABILIKO DIREN ATOI, SEMI-ATOI EDO ATOIAN ERAMATEKO NEKAZARITZAKO MAKINEN MATRIKULAK (BGM &gt; 750 KG)</b> |  |  |  |  |
|   |  |  |  |  |

**b) atalean** idatzi behar da erabiliko diren atoiaren eramateko nekazaritzako makinak (750 kg baino gutxiagoko BGM dutenak), tresnak, lanabesak eta beste nekazaritzako ekipo batzuk, matrikularik ez dutenak.

| <b>b) ERABILIKO DIREN MATRIKULARIK GABEKO TRESNAK, LANABESAK EDO NEKAZARITZAKO EKIPOAK</b> |             |              |            |            |  |
|--|-------------|--------------|------------|------------|--|
| IZENA  | ALTUERA (m) | ZABALERA (m) | LUZERA (m) | PISUA (kg) |  |
|  |             |              |            |            |  |

### 5.- Erabiliko diren nekazaritzako taldeak

Eskabidean zehaztu behar dira ibilgailu motordun bakoitzarekin osa daitezkeen talde guztiak. Edozein kasutan, eskabide bakoitzetik ibilgailu-taldeen gehiengo kopurua 30 izango da.

Taldeak bateragarriak izan behar dira; eta talde horien osaketak eta atoiaren eramaten diren ibilgailuen masek zein horiek arrastean eramaten dituzten ibilgailuen masek Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren IX eranskineko 5. atalean aurreikusten diren betekizunak bete behar dituzte.

Lauki bakoitzean osa daitezkeen taldeen arteko bat deskribatu behar da. Horretarako taldea osatuko duten elementuak identifikatu behar dira beren matrikulen bitartez, matrikularik baldin badaukate edo, bestela, beren izenen bitartez. Kasu honetan, urdinez nabarmendutako datuak bete behar dira:

| ERABILIKO DIREN NEKAZARITZAKO TALDEAK OSATZEA                               |   |
|---|---|
| TALDE MOTA  | TALDE MOTA  |
| (taldeko elementuak identifikatu eta matrikulak adierazi, baldin badaukate) | (taldeko elementuak identifikatu eta matrikulak adierazi, baldin badaukate) |

|  |  |
|--|--|
|  |  |
|--|--|

### 6.- Jatorria eta helmuga

Atal honetan "Jatorria" eta "Helmuga" laukietan jarri behar da zein lurralde historikotako bideetatik zirkulatuko duen. Esaterako, Arabako Lurralde Historikotik baino ez badu zirkulatu behar, "Jatorria" laukian: "Araba" idatziko da eta "Helmuga" laukian: "Araba"; Araba eta Bizkaiko Lurralde Historikoetatik zirkulatu behar badu, "Jatorria" laukian: "Araba eta Bizkaia" idatziko da, eta "Helmuga" laukian: "Araba eta Bizkaia" eta hiru Lurralde Historikoetatik zirkulatu behar badu, "Jatorria" laukian: "Euskadi" idatziko da eta "Helmuga" laukian: "Euskadi".

Kasu honetan, urdinez nabarmendutako datuak bete behar dira:

| BIDEAK    |  |          |  |
|-----------|--|----------|--|
| Jatorria: |  | Helmuga: |  |

### 7.- Ordainketa-gutuna posta elektronikoaren bidez jasotzeko eskaera

Ordainketa-gutuna posta elektronikoaren bidez jaso nahi baduzu, adierazi behar duzu. Bide horretatik jasotzeko eskabidea betetzen baduzu, zuzentzeko errekerimenduak ere, egonez gero, bide beretik helaraziko zaizkizu.

Era berean, eta eskaera izapidetu ahal izateko, eskaeran agertzen diren datuak egiazkoak direla adierazteko erantzukizunpeko adierazpena bete behar da.

Kasu honetan, urdinez nabarmendutako datuak bete behar dira:

| ESKABIDEA  |  |
|--|--|
| <input type="checkbox"/> Ordainketa-gutuna e-mailez jaso nahi dut (e-maila jarri):   |  |
| <input type="checkbox"/> Nire erantzukizunpean, eskaera honetan jasotzen diren datuak egia direla aitortzen dut. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Segurtasun Sailak jakinarazi nahi dizu agiri hau betetzearen ondorioz lortutako zure datuak fitxategi automatizatu batean sartuko direla, izapidetuak izateko. Hala nahi izanez gero, Legeak aurreikusten duenaren arabera, datuetara sartzeko, aldatzeko, deusezteko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzaren aurrean: Donostia-San Sebastián kalea, 1 zk., 01010 Vitoria-Gasteiz. |  |

## **VI.- PROZEDURA ETA BAIMENA EMATEA**

### **1. Baimenaren tasaren ordainketa-gutuna**

Eskabidea behar bezala bete dela eta eskatutako agiriak aurkeztu direla egiaztatu ondoren, eskatzaileari jakinaraziko eta helaraziko zaio dagokion tasaren ordainketa-gutuna. Ordainketa-gutunaren zenbatekoa izango da EAEko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legeak 99. artikuluan ezarritakoa eta 2016. ekitaldirako 125 eurokoa da.

Tasa hori ordaintzeak "espedienteari hasiera" ematen dio, espedientearen amaieran baimena eman zein ez eman.

Eskatzaileak (edo baimenaren titularrak) adierazi badu ordainketa-gutuna eskabidean identifikatzean idatzi duen helbide elektronikoan jaso nahi duela, gutuna helbide horretara bidaliko da; bestela, LB-n izango du eskuragarri eta eskuragarri duela jakinaraziko zaio, eskabidean idatzitako telefono-zenbakiaren bitartez.

Tasaren ordainketa-gutuna bidalita eta baimenaren tasa ordainduta, espedientea izapidetzen hasiko da.

### **2. Eskabidean egindako akatsak zuzentzea**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak (aurrerantzean 30/1992 Legea), azaroaren 26koak, 71. artikuluan xedatzen duenaren arabera, baimen-eskabideak beharrezko baldintzak betetzen ez baditu edo daturik falta bada, Lurralde Bulego izapidetzaileak interesdunari eskatuko dio hamar egun baliouduneko epean falta diren datuak aurkezteko edo osatzeko edo behar diren agiriak eransteko. Horrez gain, jakinaraziko zaio hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, 30/1992 Legearen 42. artikuluan jasotako moduan ebazpena eman ondoren.

Zuzenketa jaso ostean, izapidetzen jarraituko da. Bestela, eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da.

### **3. Espedientearen ebazpena: baimena edo ukapena**

Espedientea izapidetzen amaituta, LB izapidetzaileak arrazoietan oinarritutako ebazpena emango du, aurkeztutako eskaera baimentzeko edo ukatzeko.



Bazter utzirik eskatzaileek atzera egin duten (zuzentzeko errekerimenduei kasu egin ez dietenean) edo uko egin dioten kasuak, LB izapidetzaileak arrazoieta oinarritutako ebazpena emango du, aurkeztutako eskaera baimentzeko edo ukatzeko.

Espedientea gehienez ere HIRU HILABETEKO epean ebatzi behar da, eskabidea LB izapidetzailean sartu den egunetik kontatzen hasita (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.3.b) artikulua). Epe hori eten ahal izango da 30/1992 Legearen 42. artikuluko 5 a) eta 5 b) ataletan aurreikusitako kasuetan.

Baimena bi urterako emango da eta baimenaren barruan dagoen ibilgailu motordun bakoitzeko ebazpen sinatu bat egingo da. Ibilgailu horiek zirkulatu ahal izango dute aldi berean bakoitza bere aldetik edo baimendutako talde desberdinak osatuz.

Baimena eskabidea izapidetu duen Trafikoko Lurralde Bulegoan edo beste bi lurralde-bulegoetako batean jaso ahal izango da edo hartu-agiriarekin posta ziurtatuaz helarazi ahal izango da.

## **VII.- BAIMENAREN ZIRKULAZIO-BALDINTZAK**

Behin espedientearen izapidetzea osatuta, eta ebazpena aldekoa den kasuetan, baimenaren baliozkotasuna ebazpenean ezarritako baldintzetara lotuta egongo da.

Egoera zehatzak kontuan izanik beste baldintza batzuk ezar badaitezke ere, oro har, baldintzak ondorengo gaiei buruzkoak izango dira:

### **Ardura**

“Baimenak balioa izan dezan, ezinbestekoa da bertan ezarritako baldintza guztiak betetzea. Gidariak baimena eramateko eta, agintaritzako agenteek eskatuz gero, horiei baimena erakusteko betebeharra du.”

Baimenaren titularra eragin ditzakeen kalte eta galera guztien arduradun zuzena izango da eta baimena eman duen Lurralde Bulegoak ez du inolako ardurarik izango baimena emateagatik.

Baimenak balioa izan dezan, ezinbestekoa da baimendutako ibilgailuek IAT indarrean izatea.

## **Nekazaritza taldeen eraketa**

Baimenaren barruan dauden taldeak abian daudenean, talde horien eraketak eta atoan eramaten diren ibilgailuen masek zein horiek arrastean eramaten dituzten ibilgailuen masek bete behar dituzte Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren IX eranskineko 5. atalean aurreikusten diren betekizunak.

## **Zirkulazio-arauak**

### **- Murrizketak eta pasabide-erreserbak**

Baimenaren barruan dauden ibilgailu-taldeek abian zirkulatu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoan bideen titularrek txosten orokorretan jakinarazi dituzten bideen zirkulazio-murrizketak (debekuak) eta pasabide-erreserbak (neurriak) bete beharko dituzte. Horiek Trafiko Zuzendaritzaren web-orrian argitaratuta daude <http://www.trafikoa.eus>.

Pasatzeko murrizketetan bidearen titularrak **zirkulatzea debekatzen du**, baldin eta ibilgailuen masak edota neurriek bideak onartzen dituenak gainditzen badituzte. Azpiegiturak ibilgailua edo ibilgailu-taldea pasatzeko ezartzen dituen muga fisikoak dira, azpiegitura horren galiboaren edo sostengu-ahalmenaren ondoriozkoak.

Pasabide-erreserbetan bideko titularrak baimena ematen du arauko masak edota neurriak gainditzen dituzten ibilgailuak bideko puntu zehatz batzuetatik pasatzeko, baina horretarako **arreta-neurri bereziak** hartuta. Neurri horiek esplizituak edo inplizituak izan daitezke eta azpiegituraren ezaugarri fisikoen ondorio dira.

### **- Bideak frogatzea**

Baimenaren titularrak egiaztatu behar du, bidaia bakoitzaren aurretik bideetatik ibiliz ere, horietatik ibiltzea eragozten duen muga edo traba fisikorik ez dagoela. Hiri barruko bideetan udal agintaritzak zehaztutako ibilbidea egin behar dute.

### **- Zubietatik pasatzea**

Taldea, abian dagoela, zubietatik pasatzean aldi berean ez da beste ibilgailurik pasatuko eta taldea galtzadaren erditik zirkulatuko da, abiadura motelean eta bat-bateko balaztadarik edo azeleraziorik egin gabe.

- **Altuera murriztea**

Baimenak balioa izateko, baldintza hauek bete behar dira: taldea abian dagoela, horren guztizko altuera ibilgailuaren gailu hidraulikoen bitartez murrizteko aukera izatea, hori egitea beharrezkoa den ibilbidearen zati guztietan; eta altuera-mugetatik (gaineko pasabideak, atebideak, portiko seinalizazioak, etab.) gurutzatu aurretik, hori segurtasun-neurri nahikorekin egin ahal dela egiaztatzea eta altuera murrizteko maniobra egitea.

- **Gutxieneko tartea/aurreratzea**

Taldeak, abian dagoela, aurretik daukan ibilgailutik gutxienez 50 metroko tartea gorde behar du eta bera baino azkarrago doazen ibilgailuek aurrera dezaten utziko eta erraztuko du eta, beharrezkoa bada, geldituko da; betiere, beste ibilgailu batzuetako gidariei beren abiadura edo ibilbidea bat-batean aldatzera behartu gabe.

- **Geratzea / aparkatzea**

Beti galtzadatik eta bazterbidetik kanpo geratu eta aparkatuko du.

- **V2 / Argiak**

Taldeak abian V-2 argi-seinalea erabiliko du, Zirkulazio Erregelamendu Orokorren 173 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, dagokionean, gainerako arauzko argiak erabili behar ditu. Gainera, une oro erabiliko ditu argi laburrak.

- **Autobiatik zirkulatzeko debekua**

Debekatuta dago autobietatik ibiltzea, ibilbide ordezkorik edo zerbitzu-bide egokirik ez dagoen tartetean izan ezik. Horrelakoetan autobideetatik zirkulatu ahal izango dute, lauan 60 km/h abiadurara iritsi ez arren.

- **Fenomeno atmosferikoak**

Zirkulazioa eten eta plataformatik irten egingo da, baldin eta zirkulaziorako arriskutsuak diren fenomeno atmosferikoak badaude edo, gutxienez, 150 metroko ikuspena ez badago, hala aurrerantz nola atzerantz.

- **Orrazia edo ebakitzekoa desmuntatuta**

Nekazaritzako makina autopropulstakuek elementu eraisgarri edo desmuntagarriak badituzte, bilduta edo desmuntatuta eraman behar dituzte. Gainera, orrazia edo ebakitzekoa izatekotan, une oro desmuntatuta eraman behar dute.

- **Zirkulazio-egunak eta -orduak**

Baimenduta dauden taldeek abian, edozein bide motatetik, oro har, eguneko ordutegian zirkulatuko dute. Salbuespenez eta, nekazaritzako kanpaina zehatzetan, esaterako zerealaren edo erremolatxaren kanpainetan, gaueko ordutegian zirkulatu ahal izango dute.

Baimendutako taldeek abian asteko egun guztietan zirkulatu ahal dute eta ez zaizkie aplikatuko Trafikoko Zuzendariaren urteroko Ebazpenak, trafikoa arautzeko neurri bereziei buruzkoak, ezartzen dituen zirkulazio-murrizketak. Hala ere, ezin izango dute zirkulatu berriaz murriztutako data, ordutegi edo bide zehatzean. Horiek urtero ezartzen dira eta Trafiko Zuzendaritzaren web-orriari kontsulta daitezke <http://www.trafikoa.eus>.

- **Bideko murrizketak / agenteek adierazitakoak**

Berriaz ezarritako zirkulazio-murrizketak errespetatu behar dira, bidean seinaleztatuta daudenak eta trafikoa zaintzeko ardura duten agintaritzako agenteek adierazitakoak.

- **Ibilgailu pilotuaren laguntza**

Nekazaritzako ibilgailuek edo haien taldeek, ibilgailu pilotu bat (traktorea ez dena) erabili beharko dute ondorengo egoeraren bat ematen denean:

-Zabalerak 3,50 metroak gainditzen dituzenean, autobia eta errepide arruntetan. Autobietan ibilgailu pilotua atzealdean kokatuko da eta errepide arruntetan, aldiz, aurrealdean.

-Zirkulazio-abiadura 60 km/h baino txikiagoa denean autobietan, eta 25 km/h baino txikiagoa denean errepide arruntetan. Bi kasuetan ibilgailu pilotua atzealdean kokatuko da.

-Zabalera 3 metrokoa edo gehiagokoa denean eta abiadura 25 km/h baino txikiagoa denean, errepide arruntetan. Ibilgailu pilotua aurrealdean kokatuko da.



|                            | <b>IBILGAILU PILOTUA</b> | <b>KOPURUA ETA KOKAPENA</b> | <b>BIDEA</b>                   |
|----------------------------|--------------------------|-----------------------------|--------------------------------|
| <b>ZABALERA</b>            | > 3, 5 m                 | 1 ATZEAN                    | Autobiak <sup>1</sup>          |
|                            |                          | 1 AURREAN                   | Errepide arruntak <sup>2</sup> |
| <b>ABIADURA</b>            | < 60 km/h                | 1 ATZEAN                    | Autobiak <sup>1</sup>          |
|                            | < 25 km/h                | 1 ATZEAN                    | Errepide arruntak <sup>2</sup> |
| <b>ZABALERA + ABIADURA</b> | ≥ de 3 m +<br>< 25 km/h  | 1 AURREAN                   | Errepide arruntak <sup>2</sup> |

- <sup>1</sup> Zirkulazioaren noranzko bakoitzerako 2 errei edo gehiagoko bideak.
- <sup>2</sup> Zirkulazioaren noranzko bakoitzerako errei bakarreko bideak.

Ibilgailu pilotuak gutxienez 50 metroko tartea gorde beharko du eta V-2 seinalea erabili zerbitzuan ari den bitartean. Seinalea atzetik eta aurretik ikusgai izan beharko da eta zerbitzua bukatzean deskonektatu egin behar da. Halaber, V-21 seinalea erabiliko du "ibilgailu bereziei edo garraio bereziko erregimenean dihardutenei laguntzen dien ibilgailuaren ohartarazpen-kartela"

#### - **Polizia-eskoltaren laguntza**

5 metrotik gorako zabalera daukaten taldeek abian, bide-mota edozein dela ere, polizia-eskoltak lagunduta joan behar dute.

### **VIII.- DATU PERTSONALEN BABESA**

Eskabidean jaso diren datu pertsonalak, baita eskabidearekin batera bidalitako agirietan jasotakoak ere, fitxategi automatizatu batean gehituko eta tratatuko dira, aurkeztutako baimen-eskabidea izapidetzeko eta ebazteko helburu soilarekin, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoaren 5. artikuluan eta legea garatzeko araudian xedatutakoa betez. Helburu horrekin, legeak aurreikusitako kasuetan baino ez dira komunikatzeko modukoak izango datuok.

Eskabidean eta atxikitako agirietan eskabidea aurkezten duena ez den beste pertsona fisikoei buruzko datu pertsonalik balego, eskabidea aurkezten duen pertsonak klausula honetan eman diren alderdien berri eman beharko die.

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza da datu pertsonalen fitxategi horren organo arduraduna. Datuetan sartzeko, aldatzeko, deusezteko eta aurka egiteko eskubideak erabili daitezke, Trafiko Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz.